

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EGITURA DEFORMATUEN EGIAZTAPENA	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0944		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen karrozeria		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuen egitura-elementuak.	Iraupena	200
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Bankadako egituraren posizionamendua eta kontrola.	Iraupena	90
	Bankadako konponketa.		70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0125_2 IBILGAILUAREN EGITURA KONPONTZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ibilgailu batean karga-mota desberdinak sartzean haren egiturak zer kalte eta deformazio izan litzakeen aztertzea.

EI1.1 Indar-sistemak konposatzea eta deskonposatzea.

EI1.2 Ibilgailu batek nolako deformazioa izan lezakeen adieraztea, fabrikatzaileak emandako deformazio-puntuaren arabera eta fabrikatzailearen ez diren informazio-iturrien arabera ("crash-test": talka-proba).

EI1.3 Fabrikatzaileek erabiltzen dituzten karrozeria- eta bastidore-motak desberdintzea.

EI1.4 Kalteak diagnostikatzeko metodoak eta ekipoak identifikatzea, eta kontrolatu beharreko deformazioekin lotzea.

EI1.5 Ibilgailuaren egitura aztertu beharreko parametroak zehaztea, dagokion dokumentazio teknikoak interpretatuz.

A2: Egitura-deformazioaren bat duten maketei edo ibilgailuentzako neurriak ezartzea.

EI2.1 Hagadun konpasarekin eta egitura-neurgailuekin zehaztutako parametroen neurriak ezartzea.

- Egituraren zoruan erabiltzen diren neurtzeko tresnak hautatzea.
- Egituraren zoruan neurketak egitea hagadun konpasarekin, maila-galgarekin eta egitura-neurgailuekin.
- Ateak dituzten guneeetan, motorraren konpartimentuan, maletategian eta beirak dituzten guneeetan erabiltzen diren neurtzeko tresnak hautatzea.
- Egituran neurriak hartzea, egitura-neurgailuekin.

EI2.2 Neurketa-prozesuan lortutako datuak eta dokumentazio teknikoak emandakoak erlazionatzea.

EI2.3 Egitura deformatuak izan dituen kalteak diagnostikatzea.

EI2.4 Konponketaren bideragarritasuna diagnostikatzea.

Edukiak

1. Egiturak egiaztatzeari lotutako kontzeptuak.

- Indar-sistemak: konposizioa eta deskonposizioa.
- Ordezkaria eta momentu ordezkariak.
- Irudikapen grafikoa: sinbologia eta normalizazioa.
- Neurtzeko teknikak.
- Fabrikatzaileak emandako egiturazko informazioa interpretatzea.
- Karrozeria- eta bastidore-motak.
- Talka proben funtzioa eta ezaugarriak.
- Kalte-motak.

2. Egiaztatzean behar diren ekipoak eta tresnak.

- Jasogailua.
- Maila-galgak.
- Neurgailu unibertsala.
- Hagadun konpasa.
- Lerrokgailuaren funtzioa eta ezaugarriak.
- Egituren jasotze-sistemak.
- Egitura deformatuak mugitzeko tresnak.

3. Egiaztatze-prozesuetako metodoak eta teknikak.

- Zoruetako egitura-elementuak begiratzeko teknikak.
- Ateak dituzten guneen egitura aztertzeko metodoa.
- Beirak dituzten guneen egitura egiaztatzeko metodoa.
- Egiturazko deformazioak kontrolatzeko teknikak.
- Kapotaren azpiko gunea eta maletategia kontrolatzeko metodoa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak